

Essexeko Eskolaren diskurtsoaren teoria: hegemoniaren teoria garaikidearen oinarriak

Jon Azkune Torres

Politika eta Administrazio Zientziako irakaslea, UPV/EHU
Parte Hartuz Ikerketa Taldeko kidea

Artikulu honen xede nagusia da Essexeko Eskolaren diskurtsoaren teoriaren oinarriak azaltzea. Zehazki, eskola horren kategoria nagusiak aztertu eta izan ditzakeen indargune eta gabeziak azalaraztea izango da gure helburua. Hori lortze aldera, lehenik eta behin, ezinbestekoa da eskolaren mapa kontzeptual bat eskaintzea. Horren bidez, azken hamarkadetan era abstraktuan garaturiko kontzeptuak mahai gainean jarri, dituzten ezaugarri nagusiak azaldu eta piztu diren eztabaidak jasoko dira. Ostean, ikuspegi horrek dituen gabeziak era kritikoan aztertuko ditugu. Gure ikuspegitik, teorialari nagusiek aldarrikatzen dutenaren kontra, hustasun ontologiko baten gainean eraiki dute euren eskolaren teorizazio-lana. Haren indargune nagusia hegemonia eta identitate berrien eraikuntza izango den arren, oinarri materialik gabeko eraikina eraiki dutela esan genezake.

GAKO-HITZAK: Hegemonia · Artikulazioa · Populismoa · Essexeko Eskola · Diskurtsoaren teoria

The Theory of Discourse of the Essex School: the basis of contemporary theory of hegemony

The main goal of this article is to explain the basis of the theory of discourse of the Essex School. More concretely, we will analyse its main categories and appraise its strengths and weaknesses. Firstly, we will focus on the state of the art. Through that, we are going to describe their abstract concepts, explain their main features and give an overall view of the main academic debates on the topic. Secondly, we will analyse their weaknesses from a critical approach. From our point of view, in contrast to the opinion of the most relevant members of the school, they have built their theory on an empty ontology. Thus, although their main strength lies in the study of hegemony and the construction of new identities, they do not take into account the material basis of social relations.

KEY WORDS: Hegemony · Articulation · Populism · Essex School · Theory of Discourse.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.122.2022.8>

Jasotze-data: 2021-05-26

Onartze-data: 2021-12-20

1. Sarrera: Essexeko Eskola aztergai

XX. mendeko hirurogeita hamar eta laurogeiko hamarkadetatik aurrera, diskurtsoak eta diskurtsoari loturiko teoriak geroz eta indar handiagoa hartu dute Giza eta Gizarte Zientzietan. Bira Linguistiko moduan ezagutzen den prozesu horrek ikerketa-prozesuen erdigunean kokatu zuen lengoaiaren garrantzia (Ibañez, 2003: 23). Testuinguru horretan ulertu behar da Essexeko Eskolaren diskurtsoaren teoriaren agerpena. Eztabaidagarria suerta liteke diskurtsoaren analisia zer den eta zer ez den zehaztea, edota zer eskola koka daitekeen diskurtsoaren analisiaren barruan eta zein ez. Gure helburua ez da ikerketa-eremu zabal horretan dauden korrante ezberdinen azterketa egitea, beraz, ez ditugu horren inguruan dauden eztabaidak landuko. Gure lana, horren baitan kokatzen den Essexeko Eskolaren diskurtsoaren teoriara mugatuko da.

Zehazki, gure lanaren helburua hau da: Essexeko Eskolaren diskurtsoaren teoriaren kategoria nagusiak aztertu eta izan ditzakeen indargune eta gabeziak azalaraztea. Lehenik eta behin, ezinbestekoa izango da mapa kontzeptual bat egitea. Horren bidez, azken hamarkadetan era abstraktuan garaturiko kontzeptuak mahai gainean jarri, dituzten ezaugarri nagusiak azaldu eta piztu diren eztabaidak jasoko dira. Horren ostean, eskola horren muga eta gabeziak era kritikoan landuko ditugu.

Gure ikerketa gidatzeko honako *hipotesia* proposatzen dugu: Essexeko Eskolak identitate eta proiektu politikoaren eraikuntza diskurtsiborako oinarri teoriko egokia eskaintzen duen arren, maila ontologikoan egiturazko azterketak egiteko ez du euskarri materialik eskaintzen. Ikerketan zehar ikusiko dugun moduan, ezinbestekoa izango da bi dimentsio horiek aintzat hartzea. Haren indargune nagusia gutxietsi gabe haren ahulgunea litzatekeena ere aintzat hartzea beharrezkoa da.

Metodologiari dagokionez, teoria politikoan kokatutako gaia izanik, funtsezkoa da haren berezitasunetara moldatuko diren tresnak baliatzea. Hori dela eta, Bob Jessop-en Ikuspegi Estrategiko Harremanezkoak ezarritako *artikulazioaren metodoari* jarraituko diogu (1982: 213-220). Horren arabera, ezinbestekoa da erreal zehatzean antzeman daitekeen ageriko errealtatea aztertu aurretik, maila abstraktu eta sinpleagoan azterketa egitea. Hori dela eta, lehenik eta behin maila abstraktu sinplean eskola horren kontzeptu nagusiak azalduko ditugu pixkanaka, analisi-planoak txertatzearekin batera zehaztasun- eta konplexutasun-maila areagotuz. Erabiliko ditugun iturriek dagokienez, eskolako kideek argitaratutako lanak eta horien lana era kritikoan aztertu duten autoreen ikerketak izango dira.

Hori horrela izanik, kategoria abstraktuen azterketarekin hasi aurretik testuinguru orokor bat eskaintze aldera, funtsezkoa deritzogu Chantal Mouffe-k eta Ernesto Laclau-k sustatutako eskola horren sorrera eta garapenari buruzko oinarritzko ideia batzuk ulertzeari. Kokapen hori eginda, hasteko, diskurtsoaren eta artikulazioaren arteko lotura landuko dugu, ostean, subjektuaren inguruko hausnarketari bide egiteko. Jarraian, antagonismoaren eta diskurtsoaren egituraketa eta adierazleen inguruko hausnarketekin jarraituko dugu. Azterketa horren amaieran, plano zehatzagoan hegemoniaren inguruan sortu diren eztabaidak eskola horren logikaren

baitan kokatuko ditugu. Horrekin batera, aurreko hamarkadetako lanaren ondorio den populismoaren inguruko proposamena azalduko dugu. Azkenik, gure hipotesi nagusiari erantzuteko asmoz eskola horrek dituen indarguneak eta gabeziak era kritikoan azalduko ditugu.

2. Zer da «Essexeko Eskola»?

Chantal Mouffek eta Ernesto Laclauk sustatu zuten eskola horren sorrera 1980ko hamarkadan. Gramsci-ren hegemonia kontzeptua ardatz, 1985. urtean *Hegemonia eta Estrategia Sozialista*¹ (Laclau eta Mouffe, 1987) liburuaren bidez mundu akademiko zein politikoan eragin handia izan duen korrante teorikoa sortzeko hastapeneko pausoa eman zuten. Mouffek berak liburuaren 30. urteurrenean onartzen zuen moduan, liburu teorikoa eta politikoa zen aldi berean, 68ko Maiatzaren ostean klase-ardatzetik harago indartzen ari ziren hainbat mugimendu ulertzeko ezkerak zituen gabeziei aurre egitea helburu zuena (Errejón eta Mouffe, 2015: 9).

Proiektu horren oinarria marxismo ortodoxoarekiko autoreek politikoki eta teorikoki zuten asegabetasunari aurre egitea zen. Jules Townshend-ek esandakoari jarraituz, teorikoki, marxismo ortodoxoak ez zien ideologiaren ikuspegi erabilgarria eskaintzen: egitura/gainegitura banaketak erlazio sozialen eraikuntza ideologikoa baztertzen zuen eta klase-ardatzetik harago kokatzen ziren identitate politikoak azaltzeko arazoak zituen (2004: 270). Aipatu dikotomiaren eragina gutxitzeko asmoz autonomia erlatiboa proposatzen zuten ikuspegiek ere ez zuten azken instantziako determinismo ekonomikoa gainditzeko gaitasunik adierazten. Hori dela eta, diskurtsoak eta identitate politikoak ekoizpen-erlazioen epifenomeno gisa ikusi ordez, egungo erlazio sozialen oinarrian dauden antagonismoen eraginez sorturiko borroka hegemonikoen ondorio gisa ikusten dituzte.

Besteak beste, Foucault, Lacan, Saussure, Wittgenstein, Lefort, Macpherson, Althusser eta Gramsci dira Laclau eta Moufferen hasierako lanetan eragin handiena izan duten autoreak² (Howart, 2000; 2015; Townshend, 2004). Mouffek berak dioskun moduan, Foucaultek eta postestrukturalismoak garrantzia handia izan zuten esentzialismoari aurre egiteko. HESren berezitasun teorikoa, hain zuzen ere, postestrukturalismoa Gramscirekin elkartzea izan zen (Errejón eta Mouffe 2015: 12-13).

Aipatu uztarpena, «Gramsciren foucaultizazioa» eta «Foucaulten gramscizazioa»ren logikan kokatzen du Ngai-Ling Sum-ek (2004: 7). Era orokor batean Laclauk eta Mouffek eragiletza hobesten duen ikuspegia duten bitartean, Jessopek eta de Certeauk egiturei garrantzia handiagoa ematen dietela³ esan dezakegu. Hori dela eta, *gure hipotesian* aurreratu dugun moduan, Laclau eta Moufferen ereduak egiturazko oinarri materialari garrantzia gutxi ematen diola esan dezakegu.

1. Hemendik aurrera HES.

2. Ezin dugu ahaztu Moufferen hurrengo lanetan Carl Schmitte, adibidez, izan duen garrantzia.

3. Hala ere, Laclauk Derridaren eragina maiz onartzen duen bitartean (1998), Foucaulten eragina espresuki murrizten du: «El trabajo de Foucault sólo tuvo una limitada influencia en mi enfoque y sólo me despierta una simpatía muy restringida» (Laclau, 2003: 285). Foucaulti egiten dion kritika nagusia praktika diskurtsiboen eta ez-diskurtsiboen artean egiten duen banaketa da, Laclau eta Moufferen ikuspegitik praktika guztiak diskurtsiboak direlako (Laclau, Mouffe, 1987: 180).

Laclau and Mouffe Hall Fairclough Jessop de Certeau



Gramsciren
foucaultizazioa

Foucaulten
gramscizazioa

1. irudia. Gramsci eta Foucault. Gramsciren foucaultizaziotik Foucaulten gramscizaziora. Iturria: Sum, 2004: 7.

Essexeko Eskolako kide den David Howarth-ek diskurtsoaren teoriaren aplikazio enpirikoetan lotura duten bi ikerketa-eremu hobesten ditu: identitate politikoen eraikuntza eta desegitea, eta mito eta iruditeria kolektiboak sortzen dituzten praktika hegemonikoak (2000: 136). Neurri batean *gure hipotesian* jaso bezala, hori izango da haren jarduera-eremu pribilegiatua eta, hortaz, haren indargune nagusia.

Esandakoaren arabera, beraz, bi korronte horien gorputz teorikoa uztartuz marxismo tradizionalaren «klase-esentzialismoa» gainditu eta «soziala» artikulazio politiko kontingenteen ondorioz eraikitako espazio diskurtsibo gisa definitu zuten (Errejón eta Mouffe, 2015: 11). Oinarri hori hartuta, HES idatzi ostean Laclau eta Moufferen arteko lan intelektualaren banaketa artikulatu bat gertatu zen, posizio-gerra akademiko baten bidez euren proiektuari atxikimendua emango zioten aliatuak bilatuz (Townshend, 2004: 275). Mouffek, filosofia politikoaren ildotik Carl Schmitten lanari jarraituz, «politikotasun»aren kontzeptua «pluralismo agonistiko»arekin bateragarri egin zuen lerroa⁴ abiatu zuen (*ibidem*: 279). Laclauk, beste aldetik, HESn ezarri oinarria sendotu eta garatzeari ekin zion populismoari buruzko teorizazioa izanik haren azken ekarpen esanguratsuen (Vergalito, 2007: 3). Biek abiatutako lan horren ondorio dira aipatu diskurtsoaren teoria eta Essexeko Eskola bera, eta zenbait momentutan banaturik garatu arren, etengabeko elkarrekintzan eta era osagarrian ulertu behar dira. Hori dela eta, nekez ezberdindu daiteke Moufferen eta Laclauen lana.

3. Diskurtsoa eta artikulazioa

Diskurtsoaren inguruan HESk egin duen ekarpena guztien artean berritzaileena eta aldi berean eztabaida gehien piztu duena da. Essexeko Eskolan kokatzen den David Howarthen arabera, Laclau eta Moufferen diskurtsoaren kontzeptuaren oinarria honakoa da: «... the idea that all objects and actions are meaningful, and that their meaning is conferred by particular systems of significant differences» (2000: 101)

Haien aburuz, beraz, objektu eta praktika guztiak diskurtsiboak izango lirateke. Beste era batera esanda, gauzek eta ekintzek esanahia izan dezaten diskurtso zehatzen parte izan behar dute. Horrek ez du esan nahi errealitate osoa diskurtsiboa

4. Beste hainbaten artean honako lan hauek horren adierazle dira: *El retorno de lo Político* (1999), *La paradoja democrática* (2012) edo *En torno a lo político* (2007).

b. Bestalde, *a priori*, egitura diskurtsibo guztien izaera materiala⁸ aldarrikatzen dute.

3. Osotasun diskurtsiboan logika erlazionala osatugabea eta kontingentea da: *elementuetatik momentuetara* egiten den trantsizioa ez da inoiz guztiz egikaritzen, beraz, beti egongo da praktika artikulatzailea aurrera eramateko aukera zabalik. Hori dela eta, erlazioek ezin izango dituzte identitate guztiak bildu eta kontrara ez dago bere osotasunean eraiki daitekeen identitaterik⁹. Horren ondorioz, jendartea ez da osotasun suturatu, itxia eta autodefinitua, beraz, ez dago ezberdintasunen eremu osoa finkatuko duen printzipio bakarra. Kanpoaldearen eta barnealdearen osotasuna ezinezkoa izateak ahalbidetzen du sozialaren eraikuntzarako eremua (Zubiaga, 2012).

Aipatutakoa kontuan hartuz, haien ikuspegian *diskurtsoa* eta *diskurtsiboa* ezberdindu beharra dago. Torfingen definizioari jarraituz: «Diskurtsoa adierazpen-sekuentzien batasun erlazionala da» (1999: 91).

Aldez aurretik ezarrita dagoen zentrorik ez dagoela aldarrikatzen dutenez, erabateko osotasuna eta horrenbestez itxiera ezinezkoa dela adierazi dugu. Batak bestea ordezkatzan duten zentro ezberdinen ugalketak ordenaren izaera prekarioa erakusten du eta esanahia era partzial batean finkatuko da soilik. *Diskurtsiboa* edo *diskurtsibitatearen eremua* itxi ezineko osotasun hori litzateke, eta *diskurtsoa*, aldiz, osotasun horren parte bat era prekarioan finkatzeko gaitasuna lukeen artikulazioa (Torfing, 1999: 92).

Diskurtso ororen helburua, *diskurtsiboaren* eremuan gailentzea litzateke, baina hori guztiz lortzea ezinezkoa izango denez, itxiera partziala soilik lortuko da. Beste era batera esanda, antagonismoaren izaera eratzailearen ondorioz proiektu politiko batek ezin izango du jendartearen osotasuna ordezkatu, baina praktika hegemonikoaren bidez zatikaturik dauden eskaerak artikulatu eta proiektu zehatz batean behin-behinekoz elkartzeko gaitasuna izan dezake. Horrek kanpoaldean proiektu kontra-hegemoniko bat artikulatzeko gaitasuna izan dezakeen eremu bat uztea dakar.

4. Subjektua

Diskurtsoaren teoriaren helburuetako bat klase-esentzialismoari aurre egitea dela esan dugu eta horrek lotura zuzena du subjektuen inguruan egiten duten hausnarketarekin. Althusserren ikuspegi estrukturalistak subjektuari buruz egiten duen irakurketa da haien iturri nagusia. Subjektua aldez aurretiko berezko ideia eta balioen inguruan elkarturiko elementua dela uste dutenen aurrean, Althusserrek uste du subjektuak praktika ideologikoen bidez eraiki¹⁰ egiten direla (Howarth, 2015: 132). Horrekin adierazten duena da pertsonak subjektu zehatz moduan euren bizitza ulertzeko eta bizitzeko era (langileak, emakumeak, gizonak, etab.) eragin ideologiko baten ondorio dela, eta horrek euren bizi-baldintza errealean araberako

8. Azken atalean ikusiko dugun moduan, praktikan diskurtsibitate harago doan dimentsio materialik ez dute azalduko.

9. Beti egongo da identitate horren kanpo dagoen diskurtso bat.

10. Althusserren hitzetan «interpelatuak».

identitate irudikatu bat ematen diela. Laclauk eta Mouffek subjektuen identitateak eraikiak direla onartzen duten arren, Althusserren irudikoz subjektua egitura sozial eta ekonomikoaren menpe legoke eta haientzat horrek izaera deterministegia dauka.

Esandakoa kontuan hartuz, elkarri lotuta dauden bi dimentsio gatazkatsuri jarraituz subjektuaren inguruan duten ikuspegia garatzen dute: *subjektuaren izaera diskurtsiboaren edo aurrediskurtsiboaren arteko gatazka* alde batetik, eta *subjektu-posizio*¹¹ ezberdinen arteko erlazioa bestetik.

Subjektuaren izaera diskurtsiboaren edo aurrediskurtsiboaren arteko gatazkari dagokionez, izan dituen hiru forma hartzen dituzte kontuan (Laclau, Mouffe, 1987: 195-208):

1. Subjektua agente arrazional eta gardena dela defendatzen duen ikuspegia kritikatzten dute.
2. Subjektuen posizio ezberdinen artean gertatzen den izatezko batasun eta homogeneotasunaren aurkako kritika egiten dute.
3. Subjektua erlazio sozialen jatorri eta oinarria dela defendatzen duen ikuspegia kritikatzten dute.

Aipatu kritikak kontuan hartuta, *subjektua* kategoria moduan erabiltzean, egitura diskurtsibo baten barneko *subjektu-posizio ezberdinei* egingo diete erreferentzia. Bestalde, subjektuak ez dira erlazio sozialen jatorria izango esperientzia orok aukerarako baldintza diskurtsibo zehatzak galdatuko dituelako. Aipatu elementu ezberdinetan oinarrituz, Laclauk *subjektu-posizioak eta subjektibotasun politikoa* ezberdinduko ditu (Laclau, 1990: 60).

Pertsonak posizio ezberdinekin identifika daitezkeenez, aktore indibidual batek *subjektu-posizio ezberdinak izan ditzake*. Horren arabera, pertsona batek bere burua independentista, emakume, feminista edo langile moduan defini dezake edo aldi berean subjektu-posizio horien guztien konbinazio zehatz bat egin¹².

Subjektu-posizioak indibiduoak aktore sozial moduan sortzeko erari erreferentzia egiten dion neurrian, *subjektibotasun politikoa* aktore sozialen jarduteko eraz arduratuko da. Laclaren aburuz, subjektuei identitatea ematen dieten diskurtsoen kontingentziaren ondorioz azalaraziko da aktoreen jarduera (1990: 39). Hori horrela izateko, ezinbestekoa izango da bere tresneria teorikoan garrantzia izango duen beste kategoria bat txertatzea: *dislokazioa*¹³.

11. Subjektu-posizioa Foucaultek *Ezagutzaren Arkeologian* garaturiko kontzeptua da, Essexeko Eskolak bereganatu eta haren esanahia moldatu arren. Foucaulten ikuspegitik, subjektu-posizioa modalitate enuntziatiboen baitan adierazpen zilegi eta lotesleak egiteko gaitasuna duten subjektuak lirarteke («medikua» adibidez).

12. Subjektu-posizio ezberdinen arteko erlazioari dagokionez bestalde, linguistikatik eta psikonalisitik abiatuz gaindeterminazioaren inguruan Althusserrek egindako irakurketa berreskuratu eta moldatzen dute, baina hori diskurtsoaren egituraketaren barnean gaindeterminazioaren azalpenari eskainiko atalean garatuko dugu.

13. Dislokazioak Laclaren ikuspegia «egiturazko» elementuetara gehiago hurbiltzea eragiten du.

Kontzeptu hori Zizek-ek HESn jasotako antagonismo sozialaren irakurketa kritikoa egin ostean garatu zuen Laclau (Torfing, 1999: 128). Horren bidez, egitura diskurtsiboen izaera kontingentea azaleratzen da. Prozesu sozialen bidez egituraren des-zentratze¹⁴ bat egongo da eta existitzen diren identitate eta interesetan eragin eta subjektuengan identitate-krisi bat sortuko da. Laclaren adibideari jarraituz, kapitalismoaren sorrerarekin, besteak beste, komunitate tradizionalak desagertu ziren, lan-diziplina gogorra eta soldata baxuak ezarri ziren eta horrek aurreko identitateen krisia eta identitate berrien sorrera ekarri zuen (1990: 56).

Howarthen arabera, egituretan gertatze diren krisien ondorioz aktore sozialei identitate bat eskaintzeko zailtasunak egongo dira eta subjektuak politikoki ekitera bultzatuko ditu (2000: 108-109). Identitate sozialak krisian daudenean eta egiturak aldatu behar direnean subjektua erabakiak hartzera behartuta egongo da (edo proiektu politiko batekin eta haren diskurtsoekin identifikatzera). *Identifikazio-prozesu* horren bidez sortzen dira *subjektibotasun politikoak*. Jada sortuta eta formalizatuta daudenean, *subjektu-posizio* bihurtzen dira eta horiek indibiduoak ezaugarri batzuk izango dituzten aktore sozial bihurtuko dituzte.

Dislokazioak aldez aurretik sakonki jaulkitako identitate eta leialtasun politikoen eraldaketa eragin dezake, beraz garrantzi berezia dauka krisi-testuinguruetan. Aurrerago ikusiko dugun moduan, krisi-momentuetan dira bereziki baliagarriak eskola horren irakaspenak, horiek direlako subjektibotasun politikoen aldaketarako eta identitate berriak eraikitzeko momentu pribilegiatuak. Testuinguru hauek nekez uler daitezke antagonismoaren ideia aintzat hartu gabe.

5. Antagonismoa

5.1. Antagonismoa eta objektibotasuna

Laclau eta Mouffek, antagonismoaren aldarrikapenaren bidez, besteak beste, Ted Gurr-ek, Marxek edota Duverger bezalako teorialari klasikoek¹⁵ gatazka sozialaren inguruan duten ikuspegiarekin apurtu nahi dute (Howarth, 2000: 105). Azken autore horien aburuz, gatazka, aldez aurretiko identitate eta interesak gutziz osaturik dituzten agente sozialen arteko talkaren bidez gertatuko litzateke.

Aipatu interpretazioa nagusi izan da, besteak beste, Mendebaldeko marxismoan, Frankfurteko Eskolan edota Saussureren estrukturalismoan¹⁶. Laclau eta Moufferen ikuspegitik, identitatea erlazionala izateaz gain, antagonismoaren beharra izango du. Saussureren teorian adibidez, zeinuen egitura erlazionala izan arren, aldi berean egitura itxia da eta horren ondorioz unibertsaltasuna barne-ezberdintasunik eta hausturarik gabeko osotasun moduan josturatzen da (Gadea, 2008: 5).

Perspektiba horietatik ezberdinduz, antagonismoa, objektibotasun ororen mugaren adierazlea dela esango dute (Laclau, Mouffe, 1987: 209). Antagonismoen existentziak adieraziko du ez dagoela lege historikorik ezta aldez aurretiko interes

14. 'Decentramiento' gaztelaniaz eta 'Decentring' ingelesez.

15. Gatazka soziala defendatzen duten eskolek orokorrean.

16. Eskola hauek aipatzen dira autoreengan eragin zuzena izan dutelako.

eta identitateak dituen agente politiko unibertsalik ere (Howarth, 2000: 105-106). Laclau eta Moufferen teorizazioan osotasun soziala irekita dagoen egitura bat izanik haren konfigurazioan beharrezkoa da antagonismo bat. Subjektu sozialen eraikuntzan, beraz, «bestea» aldi berean muga eta aukerarako baldintza izango da (Gadea, 2008: 5).

Hori kontuan hartuta, identitateen osotasuna beti izango da osatugabea, edozein identitatearen eraikuntzarako gure identitatea kolokan jarriko duen *bestea* beharrezkoa izango delako (Stavrakakis, 1999: 13-40). *Gu-a* eraikitzeke beti kanpoaldean egongo den *bestea* existitzea ezinbestekoa izango da. Zentzu horretan, Zubiagak adierazten digun moduan, euskal independentismoaren eraikuntzan garai ezberdinetan nagusitu den edukia aldatuz joan den arren (euskara, arraza, sozialismoa, ingurumenaren defentsa...), gako nagusietako bat kanpo-etsaiarekiko (Frantzia/Espainia) antagonismoaren ezarpena da (2012: 105).

Antagonismoa, beraz, ez da identitate osoen arteko harremanen ondorioz sortuko, identitate oso horiek eraikitzeke ezintasunaren ondorioz baizik (Laclau, Mouffe, 1987: 214). Antagonismoek, hortaz, jendartearen muga ezarriko dute, azken horrek era oso batean eratzeko duen ezintasuna hain zuzen.

Howarthek (2015: 131) dioskunari jarraituz, antagonismo sozialak diskurtsoaren teorian hiru arrazoiengatik izango dira garrantzitsuak:

1. Erlazio antagoniko baten eraketak beti «bestea» sortzea ekartzen duelako eta horren bidez muga politikoak ezarriko direlako.
2. Erlazio antagonikoak eratzeta eta muga politikoak egonkortzea formazio diskurtsiboan eta agenteen identitatearen ezarpen partzialerako ezinbestekoak direlako.
3. Antagonismoak identitate ororen izaera kontingentea era argi batean adieraziko duelako.

Antagonismoak, beraz, identitate sozial baten elementuen banatzea eta objektibotasun ororen muga adierazten du. Identitate oro bere kanpoaldean oinarrizuz eraikitzen den neurrian, kanpoalde horrek aldi berean bere izaera kolokan jarriko du eta bere aurka borrokatuko du (Gadea, 2008: 6). Beste era batera esanda, eskaera partikular ezberdinen arteko barne-ezberdintasunekin bukatzea ahalbidetzen duena ez da eskaera ezberdinei *a priori*ko batasun bat emango dion ezaugarri positibo bat, baizik eta beste baten aurkako konfrontazioa. Erabat inklusiboa den komunitate politikorik ez da existituko betiere *kanpo-eratzaille* bat egongo delako, bere existentzia eta antolaketaren baldintza den kanpoaldea hain zuzen.

Bai izaera erlazionalak (batasuna) zein antagonismorako joerak (banaketa) praktika hegemonikoaren bi momentu osagarri adieraziko dituzte, gizarte plural batean botere eta subjektibotasun forma berri bat definitzeko balio dutenak. Horren ondorioz, antagonismoa artikulazioarekin batera ulertzea ezinbestekoa izango da.

5.2. Antagonismoa eta artikulazioa

Antagonismoak sozialaren itxieraren ezintasunean duen papera azaldu ostean ideia hori garatzeko ezinbestekoa da antagonismoaren eta artikulazioaren arteko loturan kokatu beharreko dimentsio ezberdinak azaltzea. Lehenik eta behin, ekibalentzia eta diferentzian oinarrituriko logikak azalduko ditugu, ostean horiekin hertsiki loturik dauden antagonismo herritarra eta demokratikoa bereizteko. Azkenik unibertsalaren eta partikularren arteko tentsioa garatuko dugu.

5.2.1. Ekibalentzia eta diferentzia

Erlazio ekibalentzialen bidez, elementuen artean dagoen ezberdintasuna beste baten¹⁷ aurka eten egiten da haien arteko lotura sustatuz. *Erlazio diferentzialen* bidez, bestalde, elementuak aniztasunean oinarrituriko batasunean lotzen ditu. Bi erlazioetan sortzen diren lotura hauek haien hitzetan *kateak* izango dira: *ekibalentzia-kateak* eta *diferentzia-kateak* (Laclau, Mouffe, 1987: 218-228).

Ekibalentziaren logika espazio politikoaren sinplifikazioa dakarren logika da; diferentziaren logika, aldiz, horren hedapenaren eta konplexutasunaren adierazlea da. Betiere kanpoaldetik datorren eragin bat egon daitekeenez, ez dugu inoiz logika ekibalentzial osoa edo logika diferentzial osoa izango, elementu ezberdinen artean horiek elkartu eta banatuko dituen antzekotasun bat eta ezberdintasun bat egongo delako, hau da, poloen arteko tentsioa mantenduko da. Ez logika ekibalentziala ezta diferentziala ere ez da inoiz guztiz nagusituko. Horrek identitate ororen prekarietatea adieraziko du.

Bestalde, antagonismoa ezin da era singularrean ulertu, ezberdintasun-sistema batean edozein posizio bihurtu baitaiteke antagonismo baten iturri. Erlazio sozialak zenbat eta ezegonkorragoak izan, hainbat eta antagonismo-eremu gehiago pizteko aukera egongo da. Kasu horretan, aldi berean, zentralitate baten falta handiagoa izango da eta zailagoa izango da elkarturiko kate ekibalentzialak eraikitzea. Horrek lotura zuzena du Gramsciren «krisi organiko» kontzeptuarekin.

Atal honetan aipatu ditugun hainbat kontzeptu hobeto azaltzeko Zubiagak (2012b) Lemoizeko zentral nuklearraren aurkako borrokan oinarrituta darabilen adibidea gurera ekarriko dugu. *A priori* ekologista zen borroka bat beste hainbat eskari sozialen elkargune bihurtu zen, baina borrokek ez dute zertan elkarrekin jardun. Liskarraldi hori adibide hartuz, *logika diferentziala* nagusitzekotan, ekologistek, feministek, okupek, euskaltzaleek edota independentistek¹⁸ euren aldarrikapenak banaturik proposatuko litzukete¹⁹. *Ekibalentzien logika* nagusituko balitz, aldiz, aipatu aldarrikapen ezberdin horien arteko ekibalentzia-kate bat osatuko litzateke eta horren ondorioz eskaera guztiak elkarrekin daudela eta helburu berdin bat dutela ikusaraziko litzateke (2012b: 120-121). Azken kasuan, eremu politikoaren sinplifikazio baten bidez *kanpoaldean* dagoen beste baten aurka artikulatuko den *gu bat* eratuko da; *diferentziaren logika* nagusitzen bada, aldiz, banaturik jardungo

17. Kanpo-eratzaille baten.

18. Borroka edo eremu ezberdin hauek Laclau eta Moufferen ikuspegiaren eskariak izango lirateke.

19. Gramsciren kontzeptuak erabiliz, euren *momentu korporatibora* mugatuko lirateke.

duten *gu ugari* sortuko dira. Hau sakonago garatzeko hurrengo puntuan azaltzen ditugun antagonismo herritarra eta demokratikoa hartu behar ditugu kontuan.

5.2.2. Antagonismo herritarra eta demokratikoa

Arestian aipatu dugun moduan, identitate oro prekariora da eta horrenbestez ezinezkoa izango da logika diferentziala edo ekibalentziala guztiz nagusitzea. Laclaren ikuspegitik, identitate sozial guztiak ekibalentzien logikaren eta diferentzien logikaren arteko elkarreragineko eremuak dira (1995a: 152). Bien arteko oreka eta tentsioa egongo den arren, haien artean hierarkia egongo da. Momentu batzuetan logika ekibalentziala nagusituko da eta beste batzuetan, aldiz, logika diferentziala. Gaitasun handiko demokrazietan orokorrean (Tilly, 2010: 47-56) logika diferentziala nagusituko da estatu-egiturek herritarren eskaera gehienak era indibidual batean asetzeko ahalmena izango dutelako. Krisi-testuinguru batean, aldiz, estatu-egituren gaitasuna murriztuko da eta logika ekibalentziala nagusitzeko aukera egongo da.

Politikoki antagonismoa logika diferentzialaren nagusitasunean eraikitzen bada, *antagonismoaren eraikuntza demokratikoaz* arituko gara. Aurreko atalean aipatu moduan, diferentziaren logika espazio politikoaren hedapenaren eta konplexutasunaren adierazlea da (Laclau, Mouffe, 1987: 223). Eskari ezberdinek euren izaera korporatiboari eutsi eta era indibidualean jardungo dute estatu-egiturekiko logika bertikal bat mantenduz. Horren ondorioz, ezberdintzea eta subjektuen zatikatzea nagusituko da.

Horretaz gain, ezin dugu ahaztu taldeen arteko erlazioak botere-erlazioak direla. Laclaren aburuz, partikularitasun hutsean isolaturik eta era diferentzialean geratzen badira, taldeen arteko botere-harremanak eta *statu quoa* indartuko liriteke (1995b: 45). Eskaera ezberdinen partikularismorako erabateko joerak horien despolitizaziorako eta teknifikaziorako joera susta dezake. Horren ondorioz, aldarrikapen ezberdinen politizazio eta artikulazioaren ordeztan banaketarako eta despolitizaziorako joera nagusitu daiteke. Zentzu horretan, Zizeken ikuspegitik «post-politika» nagusi den garaiotan, oinarri ideologikoak dituzten gatazka eta antagonismoak adituen kudeaketaren esku uzteko joera nagusitu da (2010: 33). Hala ere, logika diferentzial demokratikoa guztiz nagusitzea ezinezkoa izango da, *arkadia* autorregulatu perfektu eta zoriontsua ezinezkoa delako eta beti antagonismoaren politizaziorako aukera egongo delako.

Esandakoaren arabera, antagonismo demokratikoaren aurrean ekibalentzien logikan oinarrituriko *antagonismoaren eraikuntza herritar*erako aukera ere egongo da. Kasu honetan espazio politikoaren sinplifikazio baten bidez posizio ezberdinak ordezkaturiko dituen identitate politiko berri bat eraikitzen da: herria (Laclau, 2005). Eraikuntza demokratikoan aldarrikapen ezberdinen momentu korporatiboan lehenesten bada, eraikuntza herritarrean aurkakoa gertatuko da, posizio bakoitzak bere izaera partzialaren parte bat galduko du ekibalentzia-kate baten bidez beste aldarrikapenekin lotuz, komunean dutena hobetsiz. Kasu horretan, eskaera ezberdinen arteko harreman horizontala lehenetsiko da.

Zubiagaren adibidea berreskuratuz, *diferentzien logikan* oinarrituz jendartearen zeuden aldarrikapen ezberdinak, hots, ekologismoa, independentzia, feminismoa, sozialismoa, euskaltzaletasuna eta okupazioa era *demokratiko diferentzian* kudeatzekotan, ez lirateke euren artean lotuko eta sistema politikoak barneratu edo ukatuko litzake. Ekibalentzien logikan oinarrituz bestalde, euren artean komunean dutena indartu eta sistema instituzionalaren aurka (haiek) dagoen herria (gu) eraikitzeke aukera egongo da sistemaren kudeaketa teknikoak kolokan jarritz (Laclau, 2005).

Eremu demokratiko instituzionalaren eta momentu populistaren arteko konbinazioa beti egongo da. Aipatu dugun moduan, erabateko logika demokratiko instituzionalak politikotasunarekin bukatu eta kudeaketa administratibo hutsa bihurtuko litzateke eta kontrara erakundetzerik gabeko etengabeko logika herritarra ere ezinezkoa litzateke²⁰. Muturren arteko tartean egongo da lehia. *Polisaren* (elkarrekin bizitzea) eta *polemosaren* (antagonismoa eta gatazka) arteko lehia eta tentsioa beharrezkoak izango dira beraz (Mouffe, 1999: 14).

5.3. Unibertsala eta partikularra

Unibertsalaren eta partikularren arteko eztabaidaren berreskurapena multikulturalismoaren indartzearen testuinguruan kokatu beharra dago. Izatezko subjektuaren heriotzak, identitate askotarikoen emergentziak edota migratzaileen inguruan pizturiko eztabaidek kultura-aniztasuna hedatu zuten. Galfarsorok dioskun moduan, «kultura-aniztasunaren inguruko eztabaidetan diferentzia eta dibertsitatea edo bestearen errespetua eta tolerantziaren gaiak ardatz dira» (2008: 28). Ideologiatzat hartuta praktika eta teoria politiko liberalaren eremuan kokatzeaz gain, multikulturalismo mota nagusia anglofonoa da (*idem*). Maila akademikoari dagokionez, batez ere 90eko hamarkadan garatu eta izan zuen arrakasta, besteak beste, Kimlycka, Taylor edo Gutman bezalako autoreen eskutik.

Laclauen hausnarketa ere testuinguru horretan ulertu behar da. Haren ikuspegitik, arazoa partikularismoaren eta unibertsalismoaren arteko banaketa era baztertzailere batean proposatzean sortzen da, hau da, partikularrak eta unibertsalak bata bestearen artean duela ulertzean (Laclau, 1995b: 41). Haren ustez, unibertsala gailendu den partikular bat litzateke. Zehatzago, unibertsalak praktika hegemonikoen bidez partikular batek bete arte ez dauka bere baitan eduki zehatzik.

Partikularretik unibertsalera ematen den jauzia ezin da alde aurretik determinaturik egon, ez da alde aurretik existitzen den klase edo subjektu unibertsal baten garaipena. Unibertsala, *erlatiboki unibertsala* izango da, betiere partikular baten artikulazio politikoaren ondorioz gertatuko den unibertsalizazioa izango delako.

Eztabaida, beraz, zuzenean hegemoniarekin lotu beharra dago, hutsik dagoen espazio horren edukia betetzeko gaitasuna duen identitate partikularra izango delako hegemonikoa. Prozesu hori zera izango da, eskaera batzuen onarpena eta beste batzuen bazterketa ekarriko duen borroka politikoa (Torfing, 1999: 175).

20. <<https://www.youtube.com/watch?v=uufpzut38kc>> aurkezpen horretan Ernesto Laclauk era didaktikoan azaltzen ditu aipatu ideiak. Azken bisita: 2021/03/02.

Hutsik dagoen espazio hori *adierazle hutsa* izango litzateke. Demokrazia, herria edo sozialismoa kontzeptuek ez dute alde zuzenetik guztiz itxita dagoen esanahi bat, aktore politiko partikularren praktika artikulatzaileen ondorioz beteko direlako.

Hala ere, Mouffek unibertsalaren eta partikularren arteko eztabaidan egiten duen ohararazpena kontuan hartu beharko dugu. Haren esanetan, «demokrazia erradikala» ilustrazioan gertatutako iraultza demokratikoaren ondorio bat den arren, ilustrazioak egindako hainbat adierazpen kolokan jartzen ditu (1999: 32). Are gehiago, demokrazia erradikal batean ezinbestekoak diren hainbat borrorak unibertsalismo-gurariei uko egiten dietela adierazten du. Adibidez, unibertsala dirudien hiritarraren ideien atzetik, gizon zuria dagoela adierazten du.

Mouffek egiten duen hausnarketa aintzat hartzea ezinbestekoa izango da, beharrezkoa baita hutsik dauden asmo unibertsalistek zer partikularitate baztertu eta zein unibertsalizatzen duten alde zuzenetik hausnartzea. Unibertsalaren eta partikularren arteko interpretazioak historikoki gatazkatsuak izan diren neurrian, gurean ere Euskal Estatuari buruzko auzian Goikoetxeak (2015) zalantzan jarri du unibertsalaren aldeko aldarrikapena.

Eskola horren garapenean hegemonia berri baten eta identitate politiko berri baten eraikuntzak izan duen garrantzia dela eta, unibertsalaren eta partikularren arteko lehia hori kontuan hartzea beharrezkoa da. Hori dela eta, «*adierazle hutsak*» edo «*adierazle flotagarriak*» izeneko elementuak garatzen jarraituko dugu.

6. Diskurtsoaren egituraketa eta adierazleak

Adierazle hutsak, *puntu nodalak*, *adierazle flotagarriak* edo *gainedeterminazioa* kontzeptuak sarri erabiltzen dituzte Essexeko Eskolaren diskurtsoaren teoriaren jarraitzaileek. Ez ditugu sakonki aztertuko, baina era laburrean definitu eta identifikatuko ditugu aurrerago egingo dugun azterketa era argiago batean uler dadin.

Adierazle hutsak, zentzu hertsian, esanahirik ez duten adierazleak dira (Laclau, 1996: 69). Ez dute alde zuzenetik esanahirik, absente dagoen osotasun baten, gabezia baten adierazleak direlako (Laclau, 1996: 80). Arestian aipatu bezala, herria, demokrazia, askapena edo sozialismoa bezalako kontzeptuak *adierazle hutsak* dira, haien behin-behineko esanahiak lehia politikoaren ondorio direlako. Hori dela eta, praktikan *adierazle hustuak* direla ere esan genezake. Hau da, adierazle partikular batek bere partikularitasuna guztiz galdu gabe, hustu egingo da ekibalentzia-kate bati lekua emateko saiakeran. Aurreko adibidea berreskuratuz, «Lemoiz Ez» adierazlea partzialki hustu egingo da bere aldarrikapenetik harago doazen beste hainbat eskariri lekua emanez (euskara, independentzia, sozialismoa, etab.).

Laclaren arabera (2005: 165), *adierazle hutsek* herri-identitate baten eraikuntzarekin zerikusia dute, muga egonkor bat existitzen dela onartzen denean. *Adierazle flotagarriak*, bestalde, muga horren desplazamenduen logikaz arduratzen diren adierazleak dira.

Essexeko Eskolarentzat, hegemoniaren eraikuntza ez da jendartean dauden talde batzuen arteko akordioa, ezta jendartean aldeztu aurretik existitzen den esentziaren egikaritzea ere. Aipatu kasuetan adierazle hutsak ez lirateke garrantzitsuak izango. Laclaren aburuz, kontrara hegemoniaren auzia adierazle hutsen produkzio sozialaren ikuspegitik aztertu behar da (Laclau, 1998: 83).

Hori kontuan izanda, jada esan dugun moduan edozein diskurtsok diskurtsibitatearen eremuan nagusitzeko, hau da hegemoniko bihurtzeko, kateak²¹ hedatuko ditu. Kate horien barnean zentzua ezartzen duten puntu pribilegiatuak dira *puntu nodalak* edo *point de capiton*-ak²². Adierazle flotarri pribilegiatuak direla esango dugu. Horien bidez, eskaera ezberdinak finkatu eta logika berean kokatzea lortuko da. Zizeken aburuz, klase-borroka beste hainbat adierazle flotarriekin (demokrazia, feminismo, ekologismoa, etab.) elkartu eta finkatuko lituzkeen puntu nodala litzateke (1989: 88).

Zubiagak Zizeken ikuspegia kritikatzeko, haren aburuz klase-borroka litzatekeelako artikulazio-gune edo *puntu nodal* nagusia eta kontrara ekologismoa, feminismoa edo nazionalismoa ezin izango lirateke puntu nodalak izan (2009: 260). Ezin dugu ahaztu momentuko lehietatik harago, berau baldintzatzen duten aukerarako baldintza materialak beti kontuan hartu behar izango ditugula eta jendarte kapitalistetan klase-interes ezberdinak mantenduko direla. Hala ere, analisi-plano honetan Zubiagaren kritikarekin bat gatoz, hegemonia berri baten aldeko lehian ezin dugulako aldeztu aurretik zehaztu zein izango den artikulazio-gune nagusia eta askotan klase-ardatzetik harago egituratuko da²³.

Azkenik, *gaindeterminazioaren* garrantzia aipatu behar da. Psikoanalisian eta linguistikan jatorria duen kontzeptu horrek Althusserrek berreskuratu zuen jendartea «egituratutako multzo konplexu» gisa definitzean, osotasun hegeliarretik ezberdintzeko asmoz (Laclau, Mouffe, 1987: 163). Eredu sozialean ez legoke *gaindeterminaziotik at* dagoen eremurik eta horren ondorioz hura ordena sinboliko gisa eraikitzen da. Hala ere, Althusserrek ikuspegi hori ez zuen guztiz garatu bere gorputz teorikoan ekonomiak azken instantzian determinatzeko zuen gaitasunagatik. Azken ikuspegi hori gaindeterminazioarekin kontraesankorra zen. Gaindeterminazioaren potentzialitatea garatzeko, psikoanalisian desplazamendu eta kondentsazioarekin loturik dagoela hartu behar dugu kontuan.

Kontzeptu horiei dagokienez, orokorrean, *desplazamendu* bat egongo da aldarrikapen baten esanahia beste batera transmititzen denean. Desplazamendua egoteko beharrezkoa izango da aldarrikapenen artean *aldamenekotasun*²⁴ bat sortzea. *Kondentsazioa*, aldiz, esanahi ezberdinek aldarrikapen batean bat egiten dutenean egongo da. Desplazamendua *metonimiarekin* lotzen du Laclauk. Kasu horretan egin den mugimendua oraindik ere begi-bistakoa izango litzateke (Laclau,

21. Ekibalentzia- eta diferentzia-kateak.


22. Lacan-en teoriatik hartutako kontzeptuak dira. Zuzenean autoreek jaso bezala erabiliko ditugu.

23. Gaia sakonago landuko dugu artikularen azken atalean.

24. 'Contigüidad' gaztelaniaz. Borroken eta eskarien arteko lotura ematen denean jazoko da. Laclaren adibidean, sindikatu baten eta arrazismoaren aurkako borrokaren artean aldamenekotasun-harreman bat sortuko da.

2003: 2). *Kondentsazioa*, bestalde, *metaforarekin* erlazionatzen du eta hemen, aldiz, ikusgaitasun hori galtzeko joera legoke.

Idea horiek honako grafikoa jasotzen saiatuko gara:



2. irudia. Desplazamendua eta kondentsazioa. Iturria: Egileak egina.

Laclauk berak proposatzen digun adibide bat erabiliz azaltzen saiatuko gara. Eremu batean indarkeria arrazista baldin badago eta sindikatuak baldin badira hari aurre egiteko indarra duten aktore bakarrak, izaera metonimikoa duen mugimendu bat sortuko litzateke, euren jarduera-eremu klasikotik at kokatuko lirakeelako. Kasu horretan, aldamenekotasun-harreman bat sortuko da. Momentu zehatzetik harago, dinamika hori egonkortzen bada, borroka sindikala arrazismoaren aurkako borroka ere badelako ustea egonkortuko da, eta mugimendu metonomikoak ardatz metaforikorako jauzia emango du (Laclau, 2003: 2).

Antzeko adibidea eskaintzen digu Zizekek (2010: 49-51). Jugoslavia ohian atxilotu zituzten lau kazetariren aurkako epaiketa ezagun batean, atxilotuen giza eskubideen aldarrikapenarekin hasi zenak *statu quo* osoaren aurkako jarrera ordezkatzeko gaitasuna izan zuen. Haren hitzetan: «Nuestra petición, “¡Justicia para los cuatro detenidos!” empezó a funcionar como condensación metafórica del anhelo de dismantelar completamente el régimen socialista» (*idem*).

Aipatu elementu guztiak elkarrekin erlazionaturik leudeke. *Gaindeterminazioaren* ondorioz, zenbait *adierazle flotagarri* erlazionaturik daudela ikusi dugu. Haien arteko lotura, hala ere, artikulazio politikoaren menpe egongo litzateke. Era *ekibalentzial* batean artikulatzekotan, *metonimiarako joera* nagusituko da eta horren hegemoniarako joera zenbat eta egonkorragoa izan, orduan eta *metaforikoagoa* izango da.

7. Hegemonia

7.1. Zer da hegemonia?²⁵

Diskurtsoarekin batera hegemonia da eskola horren oinarri teoriko garrantzitsuena. Howartheek hiru fase ezberdintzen ditu Laclau eta Moufferen hegemoniaren erabileran: 70eko hamarkadan oraindik subjektuen ikuspegi determinista mantentzen zuten eta klase sozialek gidatutako prozesua zen. Testuinguru horretan lan nagusiak Laclaren *Politics and Ideology in Marxist Theory* eta Moufferen *Gramsci and Political Theory* liriateke (Howarth, 2000: 109-110). Bigarren fase batean *Hegemonia eta Estrategia Sozialistaren* bidez identitateak eta agente sozialak kontingenteak direla aldarrikatu eta praktika artikulatzaileen garrantzia azpimarratu zuten. Hirugarren fase batean, aldiz, Laclauk elementuen kontingentzia subjektuei aplikatzeaz gain egitura sozialei ere aplikatuko die. Fase horretan, besteak beste, Laclaren *New Reflections on the Revolution of Our Time* (1990) edota Butler eta Zizekekin batera idatzitako *Contingency, Hegemony and Universality: Contemporary Dialogues on the left* (2000: 109-111) leudeke.

Kronologikoki ezberdintasunak egon arren, hegemoniaren erabilerak bata bestearen gainean teilakatzen dira, beraz operatiboa izateko ezberdintasun horiek era koherentean ordenatu beharko ditugu. Horretarako Retamozok egindako bereizketa baliatuko dugu. Haren ikuspegitik, Laclaren gorputz teorikoan hegemoniak kategoria bat eta hiru kontzeptu adieraziko litzuzke (2012: 40). Haren aburuz, kategoriak logika formal teoriko orokorrago bat eskaintzen duen bitartean, kontzeptuak abstrakzio-maila txikiago batean kontzeptuak izan ditzakeen eduki ezberdinei egingo lieke erreferentzia (*idem*).

Hegemonia kategoria moduan, unibertsalaren eta partikularren arteko erlazioari loturiko logika litzateke (*ibidem*: 45). Kontzeptu moduan, aldiz, hiru erabilera ezberdintzen ditu (*ibidem*: 49-55): maila ontologiko batean, jendartearen eraketaz oinarritzen den logika litzateke; maila ontiko batean bestetik, politikaren eremuko logikari egingo lieke erreferentzia; azkenik, identitate politikoen eraikuntzaz arduratzen den logika ere bada.

7.2. Hegemonia kategoria gisa

Laclaren lanen azterketa eginez hegemonia partikularren eta unibertsalaren arteko harremanari loturik dagoen logika dela ikus dezakegu. Butler eta Zizekekin mantentzen duen eztabaidan adibidez, hegemoniaren lau dimentsio ezberdintzen ditu eta guztien oinarria partikularretik unibertsalera ematen den jautzia da.

[...] hay hegemonía sólo si la dicotomía universalidad/particularidad es superada; la universalidad sólo existe si encarna —y subvierte— una particularidad, pero ninguna particularidad puede, por otro lado, tornarse política si no se ha convertido en el locus de efectos universalizantes (Laclau, 2000: 61).

25. Atal honen helburua ez da gure ikuspegitik hegemoniak izan beharko lukeen esanahia azaltzea izango, Essexeko Eskolaren baitan egiten diren hegemoniaren erabilera ezberdinak antolatu eta argitzea baizik.

Aipu²⁶ horretan jasotzen dugun ideia etengabe agertuko da haren lanetan eta aipatu ditugun hiru kontzeptuetan islatuko da. Hala ere, hegemonia kategoria moduan garatu ahal izateko beste nozio batzuk kontuan hartu beharko dira. Retamozok ezinbestekotzat jotzen ditu *artikulazioa*, *diskurtsoa*, *puntu nodala* eta *adierazle hutsa* (2012: 46). Guk ideia horiek beste atal batean landu ditugunez, ez ditugu gehiago sakonduko.

7.3. Hegemonia kontzeptu gisa

7.3.1. Maila ontologikoa: jendartearen eraketa

Howarthen arabera, hegemoniaren logika maila ontologikoan diharduen tresna bihurtu da eta horren ondorioz ordena sozialaren eraikuntzaren azterketetan aplika daiteke (Howarth, 2008: 336-337). Hori dela eta, hegemonia *politikotasunaren* eremuan kokatuko litzateke. Haien ikuspegiari jarraituz, *politikotasuna* amaigabetsuna²⁷ ordena baten mugen barruan zedarrizteko saiakera litzateke (Retamozo, 2012: 50). Ordenak ez du sozialaren azpian dagoen esentzia bat ordezkaten; sozialaren gainean jardun eta hegemonizatzeke saiakera da. Politikotasunak jendartearen barruan maila sortzailea²⁸ du eta ontologia sozial baten estatusa izango luke.

Sozialaren ontologiaz hitz egin arren, Howartheke adierazten duen moduan, horren inguruan erabilera ezberdinak egin ditu eta argitasuna falta zaio (2008: 333). Retamozok gomendatzen du arazo horri aurre egiteko *sedimentazioaren* nozioa berreskuratu eta *sozialaren* eta *ordena sozialaren* artean ezberdintzea (2012: 52). Aipatu kontzeptuak erabiliz, Laclaren lanean sozialaren bi erabilera ezberdindu ditugu²⁹. Lehenengo erabilera soziala jendartearekin berdinduko da eta bestean sedimentazioarekin³⁰ lotuko dugu (*ibidem*: 52-53)

1. Soziala jendartearen sinonimo moduan: politikoak sozialarekiko duen lehentasuna, lehenengoak bigarrenarengan duen izaera eratzaila onartzea dakar.
2. Sedimentazioaren dimentsio ontologikoa: politikoari loturiko operazio hegemonikoaren aukerarako baldintzak lirateke. Horiek historikoki pilaturiko praktika eta erlazio sozialak lirateke. Eremu hori (mugarik ez duena) osotasun diskurtsiboa antolatuko duten puntu nodalen bidez mugatzeko saiakera egongo da, horretarako unibertsalizatuko diren adierazle partikularrak ezarriz (praktika hegemonikoa). Soziala, beraz, atze-oihal moduan diharduten praktika historiko eta erlazio sozial horiek lirateke.

26. Ez dugu aipu gehiago jasoko, haren lanetan ideia honek duen garrantzia sakontzeko ikusi: Retamozo, 2012.

27. 'Infinitud'.

28. 'Instituyente'.

29. Retamozok hiru erabilera ezberdinak arren, egiten duen banaketan gauzak gehiago argitu ordez, ulermena zailagoa izatea lortzen du, beraz, guk bi banaketa egingo ditugu.

30. Soziala objektibotasunaren forma sedimentatua litzateke.

Hegemoniaren maila ontologikoa ordena sozialaren eraketan ekarpen garrantzitsua izan arren, Howarthen hausnarketa jasoz, beharrezkoa da Laclaren gorputz teorikoa gehiago fintzea (2008: 333). Zentzu horretan, gure hipotesian adierazi bezala, Laclauk *a priori* sofistikatua den tresneria garatu arren, hustasun ontologiko bat eraikitze arriskua dagoela uste dugu. Hala ere, hori artikularen amaieran landuko dugun gaia izango da.

7.3.2. *Maila ontikoa: hegemonia politikaren logika moduan*

Hegemoniaren bigarren kontzeptua politikaren eremuarekin kokatu beharra dago. Arditi-k oszilazioak ikusten ditu Laclau eta Moufferen erabileran, zenbaitetan hegemonia politika egiteko era bat delako (beste batzuen artean) eta beste batzuetan *per se* politika egiteko era bakar moduan erabiltzen dutelako (Arditi, 2010; Retamozo, 2012: 53). Laclau eta Moufferen erabileran anbiguotasuna eta zenbait kasutan adierazpen kontraesankorrak egon arren, guk hegemonia politika egiteko era bat dela uste dugu, beraz, hegemoniaz gain politika egiteko era ezberdinak ere badaudela onartuko dugu. Horren adibide lirateke zenbait alderdiren jokabidea, aktore batzuen korporatibismoa edota hegemonia helburu ez duten aliantza politikoak.

Bestalde, hegemonia fenomeno modernoa den ala ez eztabaidagarria izan daiteke. Retamozok adierazten digun moduan modernitatearen aurretik praktika hegemonikoak egon ziren arren (erlijiosoak, adibidez), garai horretatik aurrera hasiko dira hegemonia garatzeko baldintza egokienak ematen (2012: 54).

Hori dela eta, gure egungo testuinguruan jendartean nagusi den banaketa eta heterogeneotasuna kontuan harturik, praktika hegemonikoek inoiz baino garrantzi handiagoa dutela uste dugu.

7.3.3. *Hegemonia identitate politiko kolektiboen eraikuntzarako logika*

Arestian aipatu moduan, Laclau eta Moufferen iturri teoriko nagusia Gramsci da. *Hegemonia eta Estrategia Sozialistan* kontzeptuaren genealogia bat egin zuten, besteak beste, Plejanov, Luxemburgo, Bernstein edota Leninek egiten dituzten hausnarketak jasoz (Laclau, Mouffe, 1987: 81-155). Horien ekarpenak aztertu ostean, Gramsciren ikuspegiari lehentasuna eman zioten, marxismoaren baitan hegemoniaren ikuspegi sofistikatuen garatu zuelako. Subjektuen eraketan eremu politiko eta ideologikoari lehentasuna ematen dion arren, marxismoan nagusi zen determinismo ekonomikoaren eta esentzialismoaren ondorioz (*ibidem*: 133-155) ezin izan zuen identitate politiko kolektiboen eraikuntza muga horietatik at garatu.

Aipatu traba horiek gainditzea izan zen Laclau eta Moufferen helburua. Haien ustez, subjektuak ez dira jarduera politikoaren aurretik existitzen, horren ondorio moduan baizik. Horretaz gain, hegemonia subjektu berrien eraikuntzarako funtsezko tresna da Mouffe eta Laclaren eskeman. Lehia politiko arrakastatsua izateko, beharrezkoa izango da talde orok bere eremutik kanpo dauden indar sozialen gainean era hegemonikoan eragina izatea, baina aldi berean, horren bidez taldearen eta beste aktoreen subjektibotasuna aldatuko da (Laclau, 2006: 54).

Identitate kolektiboen sorrerarekin loturiko ideia hauek Laclau eta Moufferen eskeman etengabe agertzen diren hainbat kontzepturekin daude loturik. Beste atal batzuetan landu ditugun neurrian, hemen era laburrean besterik ez ditugu aipatuko. Identitateen eraikuntzan oinarritzakoak dira *antagonismoa* eta *kanpo-eratzaileren* ideia (Mouffe, 1999: 15). Horretaz gain, subjektibotasun demokratiko horien eraikuntzan *eskariak* ezinbestekoak izango dira (Laclau, Mouffe, 1987: 305). Eskari horiek hedatu, hustu, unibertsalizatu eta beste eskari batzuen *inskripzio-azalera* bihurtuko dira identifikazio subjektiborako eremu berria sortuz (Retamozo, 2012: 55).

Talde sozialak eskaria egiteak identifikazio- eta subjektibizazio-prozesua eragiten du, zeinaren bidez bere jatorrizko posiziotik mugitu eta bere eraketa-eremura mugitzen den. Identitate zabalagoak lortzeko ahalmena loturik dago eskariak *ekibalentzia-kateak* ezartzeko (momentu horizontala) eta *artikulatzeko* (momentu bertikala) duten gaitasunarekin (*idem*). Prozesu horretan eskari bat hustu eta ondorio unibertsalak sortzeko gaitasuna izango du. Hori izango da hain zuzen ere *identitate politikoen eraikuntzaren logika hegemonikoa*. Eskari ezberdinen artikulazioaren bidez subjektibotasun berri bat edo identitate herritar bat sortuko da.

Laclaren azken lanetan «herriaren eraikuntza» izango da lehentasuna hartuko duen auzia. Populismoaren gaiak azken urteetan Europan izan duen loraldiari lotuta, Laclaren ikuspegiak (2005) hura aztertzeko tresna garrantzitsua eskaintzen digula deritzogu.

8. Populismoa

Herria eta populismoaren inguruko hausnarketa da Ernesto Laclau eta Chantal Moufferen lan teorikoaren azken urrats kualitatiboa. *Hegemonia eta Estrategia Sozialista* (Laclau, Mouffe, 1987) idatzi ostean, identitate politikoen eraikuntzaren inguruko ikerketan sakontzea izan zen haien helburua. Herriaren eraikuntza litzateke haien ikuspegitik identitate politiko gorena eta *La razón populista* (2005) horren teorizazio garatuena.

Populismoaren auziaren gaurkotasuna nabaria izan arren, gatazka ugari sortzen dituen kontzeptua da eta oraindik oso kutsu ezkorra du. Horri aurre egiteko, Laclauk gaiaren inguruan dauden ikerketa garrantzitsuenak azertu eta zorrozki kritikatzeko dituzten populismoaren garrantzia gutxiesteaz gain haren zilegitasuna kolokan jartzen dutelako (Molina, Grosser, 2008: 141-142). Haren aburuz, horren atzean dagoena *tout court* politikaren ukapena eta gai komunitarioen kudeaketa «komunitate ona» zer den dakien botere administratibo baten esku utzi beharko litzatekeen ustea da (Laclau, 2005: 10).

Laclaren populismoaren barruan fenomeno oso ezberdinak sar daitezke, orain arte populistatzat jotzen ez ziren fenomenoak ere bai. Hori dela eta, lehenik eta behin populismoa politikoa eraikitzeko era bat dela ulertu behar dugu eta ez zedarritu daitekeen ideologia zehatz bat.

Aldez aurretik adierazi bezala, atal hau analisi-plano zehatzago batean kokatzen dugun neurrian, populismoaren teorian jada aldez aurretik maila abstraktuago batean

azaldu ditugun hainbat kontzeptu aplikatuko dira. Haren hitzetan, oinarrizkoak diren hiru kategoria daude: *diskurtsoa*, *adierazle hutsak* eta *hegemonia eta erretorika* (*ibidem*: 92-97). Eskola horren printzipioei jarraituz, *diskurtsoaren izaera eratzaillea* babestuko du, beraz, elementu ezberdinak deskribatu ordez, diskurtsoaren bidez elementu horiek eraten direla kontuan hartu beharko dugu.

Bestetik, herriaren osaketan kontuan hartu beharreko unitaterik txikienak *eskaerak* dira. Jadanik azaldu dugun moduan, horiek era *diferentzialean* edo *ekibalentzialean* artikulatu daitezke. Horretaz gain, isolaturik mantentzen badira, haren hitzetan, *eskaera demokratikoak* izango dira; aldiz, era ekibalentzialean artikulatzen direnak *eskaera herritarrak* izango dira (2005: 99).

Momentuz esandakoaren arabera, artikulazio populistan beharrezkoak lirateke (Laclau, 2005: 110):

- Gizartearen banaketa dikotomikoa bi eremutan.
- Dikotomia horrek eremu sozialaren banaketa antagonikoa ekarri behar du.
- Eremu herritarrak, bere eraikuntzarako baldintza moduan, gizarte-eskari anitzen ekibalentzien bidez eraikitako identitate globala sortu behar du. Hori lotura ekibalentzialen batuketa baino gehiago izango da.

Horretarako arestian aipatu antagonismoa eta haren izaera eratzaillea kontuan hartu behar ditugu. Antagonismoa eta muga politikoen eraikuntza azaltzeko dimentsio ezberdinak izango ditugu kontuan:

1. Antagonismo eratzailleak muga erradikal bat ezarriko du, baina horrek «hautsitako espazio baten beharra» izango du. Ordena sozialean geratzen den apurketa hori falta³¹ baten ondorio izango da eta komunitatearen osotasuna absente dagoela adieraziko du. Bete gabeko eskari horrek (falta) erantzule bat izango du, hori dela eta, eskari horiek egiten dituztenen eta eskari horiek baztertzen dituen «botere»aren arteko banaketa dikotomiko bat sortuko da. *Plebs*-a (partea) bere burua *populus* (osotasuna) moduan identifikatzen hasiko da, eskariak betetzen ez dituen boterea komunitatetik kanporatuz³².
2. *Eskaera demokratikoetatik herri-eskaeretara jauzia* emateko³³ jendartearen *marko sinbolikoetan* aldaketa bat egieta ere beharrezkoa da. Eskaera demokratikoen posizio diferentziala jendartearen nagusi den marko sinbolikoaren barruan gertatzen da, hala ere, haien frustrazioaren ondorioz jada horren nagusitasuna ahultzen hasiko da. Hori dela eta, herri-eskaerak alde aurretik existitzen den marko horrekiko geroz eta banatuago egoteaz gain, arrakastatsuak izan daitezen marko sinboliko berri bat eraiki beharko dute. Prozesu horretan etsai baten eraikuntza politikoa ere beharrezkoa da.

31. Falta hori bete gabeko eskari bat izango da.

32. Komunitatearen osotasuna kolokan jartzen duten neurrian, ez dira komunitatearen parte zilegia. Boteredunak, oligarkak, kasta edo *stablishment* komunitatearen osotasunaren faltaren erantzule bihurtu daitezke eta, hortaz, ez dira komunitatearen parte zilegia.

33. Logika diferentzial/indibidualean planteatzen diren eskaera izatetik logika ekibalentzial/populistan planteatzera ematen den *jauzia* litzateke.

3. Azkenik, euren artikulazioaren bidez «herritarrak» bihurtu diren eskarietan *ezberdintasunaren eta ekibalentziaren artean gertatzen den tentsioa* hartu behar dugu kontuan. Alde batetik, artikulazio herritarrak eskaera indibiduali inskripzio-azalera bat eskaintzen die eta horren ondorioz momentu zehatz bateko eskaera bat izatetik egonkortasuna duen «posizio-gerra» batean kokatzera igarotzen dira³⁴. Bestetik, «herriak» (kate ekibalentzialak) bere mugimenduzko³⁵ lege estrateragiko propioak ditu eta zenbait eskaera partikularretan dauden eduki batzuk sakrifika ditzake (Laclau, 2005: 112-117)³⁶.

Lotura ekibalentziala eta muga politikoaren eraikuntza ikusi ostean, erlazio ekibalentzialaren ondorioa litzatekeena azaldu behar da: *herri-identitatea* bera. Hastapeneko momentu batean, erlazio ekibalentzialen artean tinkoa ez den lotura bat besterik ez dago, baina horiek identitate diskurtsibo batean kondentsatzea lortuz gero, jauzi kualitatibo bat emango litzateke eta populismoaren «herria» sortu. Momentura arte eskari ezberdinen arteko bitartekaritza zenak berezko «gorputza» lortuko luke. Honako grafikoaren bidez irudikatzen dugu prozesua:



3. irudia. Eskaera partikularrak eta ekibalentzien logika. Iturria: Egileak egina.

Hori lortzeko beharrezkoa da osotasuna ordezkatzeko duen izendatzaile komun bat egotea. Hori arrazoi ezberdinengatik zentralitatea hartzen duen eskaera partikular baten bidez egingo da, partikular baten unibertsalizazioan oinarrituriko operazio hegemonikoaren bidez hain zuzen. Horren bidez, populismoan ohikoak diren *anbiguotasuna* eta *lidergoaren garrantzia* azal daitezke. Eskaera heterogeneoak ordezkatzeko, herri-identitatean anbiguotasun-maila bat beharrezkoa izango da. Bestetik, lotura ekibalentziala sustatzeko lidergoak funtzio garrantzitsua izan dezake. Laclaren hitzetan, azken finean, ekibalentzialki elkarturik mantentzen den multzo heterogeneo bat singularitate bat besterik ez da (*ibidem*: 130). Singularitatearen muturreko forma, bestalde, indibidualitate bat da. Era horretan, ekibalentziaren logikak singularitate bultzatzen gaitu eta horrek, aldi berean, taldearen batasuna liderraren izenarekin identifikatzera.

Horrekin batera ezinbestekoa da «izendapena» eta horrek duen izaera eratzailerik kontuan hartzea. Izendapenak ez du errealitate objektibo bat deskribatzen, errealitate hori sortu egiten du. Izena, gauzaren oinarria bihurtzen da. Lau dimentsio hartu behar dira kontuan:

34. Honen bidez, epe motzean desagertzeko arriskua zuen eskaera batek kate baten barruan egonkortasuna lortzen du.

35. Gramscik garaturiko «posizio-gerra» eta «mugimendu-gerra» aplikatzen ditu Laclauk.

36. Hau are nabariagoa da hurrengo kontuan hartuz: eskari bakoitzak bata bestearekiko duen lotura kate ekibalentziaren bidez mantentzen du. Hori eraikuntza diskurtsibo kontingente bat da eta ez alde zuzenetik ezarritako batasun baten ondorioa, beraz edozein momentutan alda liteke.

- *Elkargunea/Point de capiton/Puntu nodala.*
- Elkargunearen identitatea determinatzen duen unibertsalismoaren eta partikularismoaren arteko harremana: *adierazle hutsa.*
- *Unibertsalaren eta partikularraren arteko artikulazioa* ez da hitzen eta irudien eremura mugatzen: praktika eta erakundeen bidez sedimentatzen da. Partikularitate batek (*plebs*-ak) hegemonikoki *populus* bat osatzea aldarrikatuko du eta horren existentzia aldi berean *plebs* baten ordezkartzaren bidez soilik izango da posible.
- Bete ez diren eskaeren arteko hasierako harremana ahula izango da, euren artean komunean erakundeen porrot bat besterik ez dutelako izango. Maila horretatik harago joateko eta multzo ekibalentzialen batasuna lortzeko *izenaren produktibitate soziala* kontuan hartu beharko dugu. Prozesu horretan hurrengo bi maila hauek ezinbestekoak izango dira:
 - *Izenak* bete gabeko eskariekiko erakarpena izan beharko du.
 - Rol hori bete dezan, *adierazle huts* bat izan behar du.


Horrekin batera, erretorikaren elementuak baliatuz, desplazamendu erretorikoen bidez izena bere erreferentzia kontzeptualengandik askatzen dela esan dezakegu. Eskoziar kasuan adibidez, independentismoa bere «partikularitate»tik harago beste eskari edo borroka batzuen ordezkari bihurtu zen 2014ko erreferendumetik aurrera (Azkune, 2016; 2017). Mugimendu independentista, independentismo soiletik harago beste eremuetan jardutean (osasan-zerbitzu publikoen defentsan, adibidez), borroken arteko *kontiguitatea* edo *aldamenekotasuna* dagoela esango da (Azkune, 2020). Arazo, aktore edota hitzen desplazamenduari *metonimia* deituko zaio. Borroka ezberdinen arteko lotura denboraldi batez luzatzean, *aldamenekotasun*-harremana harreman *analogiko* bihurtuko da eta aldi berean *metonomia metafora*.

Desplazamendu erretoriko horrek 3 aldaketa nagusi eragiten ditu:

1. Hasieran aipatu borroka ezberdinen arteko partikularitate diferentziala ahulduz doa eta haien artean homogeneotasun ekibalentzial bat eratzen da.
2. Aktorearen izaera «korporatiboa» galduz doa, eta izaera «hegemonikoa» lortu.
3. Aktorearen izena, adib: «Yes Campaign», agente sozial zehatz baten izen bihurtzen da eta haren esentzia elementu heterogeneoen artikulazio zehatza egitea da. Izen horren bidez, borondate kolektibo elkartu bat gauzatzen da.


Esandako guztia kontuan hartuz, zuzenean artikulazio populistaren funtzionamendua grafiko batzuen bidez aztertuko dugu. Populismoaren hastapeneko fase batean, bete gabeko eskariak euren artean komunean dutena erakundeen partetik jasotako arbuioa litzatekeela esan dugu. Horretaz gain, horietako bat (dimentsio irabazlea) oposizio horren katalizatzailea bihur daiteke. Ideia hori honako irudiaren bidez jasotzen saiatuko gara:

E



4. irudia. Arbuioa eta dimentsio irabazlea.
Iturria: Errejonek egindako irudian oinarritua (2011: 201).


Operazio hegemonikoaren ondorioz, dimentsio irabazlea osotasuna ordezkatzeko duen partikularra bihurtu daitekeela esan dugu. Hurrengo irudiaren bidez irudikatuko dugu:



5. irudia. Dimentsio irabazlea eta osotasunaren ordezkapena.
Iturria: Laclaren irudian oinarritua (2000: 302).

Eredu horretan tsarismoan oinarritutako operazio hegemonikoaren adibidea azaltzen du Laclauk (2000: 302-305). Borobileko beheko partea, eskari bakoitzaren partikulartasuna litzateke eta goiko partean ekibalentzia ahalbidetzen duen komuneko elementua (sistemaren aurka egotea). E1 eskariak, gainera, guztiak ordezkatzeko gaitasuna izango luke aldi berean katearen parte izanik katearen gainetik ere kokatuz. Aurreko adibidea operazio hegemonikoaren eredu sinplifikatua litzateke, barne-mugaren egonkortasuna aurreikusten duelako. Hala ere, hau errealitatean horrela suertatzea zaila izango da, eskariek beti proiektu hegemoniko ezberdinen presioa jasotzen dutelako eta horren ondorioz bere zentzua muga ekibalentzial alternatiboen artean finkatu/mugituko delako (Laclau, 2005: 165). Horretaz gain, ekibalentziaren eta diferentziaren arteko tentsioa ez da beti perfektua izango eta bata bestea gailendu dezake. Elementu horiek aintzat harturik, operazio hegemonikoan lau eszenatoki aurreikus ditzakegu:

1. *Lotura ekibalentzialaren erabateko nagusitasuna*: ekibalentziaren eta diferentziaren arteko tentsioa ezinbestekoa da, baina ekibalentziaren nagusitasuna erabatekoa bada, adierazle hutsa edozein ideia eta eskariren karkasa hutsa bihurtzen da. Gauza batek aldi berean guztia ordezkatzeko duenean, jada ez du ezer ordezkatzeko gaitasunik. Argentinan guztiak peronismoa aldarrikatzean, identitate politiko moduan duen eraginkortasuna galdu egiten du (Errejón, 2011: 203).
2. *Diferentzien erabateko autonomia*: kasu honetan diferentziek elkarrekin zuten komuneko elementua galdu eta haien autonomia nagusituko litzateke eremu herritarra disolbatuz. Prozesu honetan ez dago kanpoko aktore baten zuzeneko ekimenik, mugimendu herritarrak muga antagonikoa eta ekibalentzia mantentzeko duen gaitasunik ezaren ondorioa litzateke. Neurri batean hasierako M-15 mugimendua logika honetan koka genezake. Lehenbiziko momentuan eskari ezberdinen artikulazio ekibalentziala egiteko izan zuen gaitasuna denboraren poderioz ahuldu zen eta diferentzien autonomia nagusitu zen. Horrek, hala ere, mahai gainean utzi zituen hiru urte beranduago Podemosen artikulazio populistarako beharrezkoak ziren hainbat elementu (Azkune eta Zubiaga, 2018).
3. *Iraultza pasiboa eta transformismoa*: Gramscik adierazten zuen moduan, sistema politikoan nagusi den taldeak aurka dauden taldeen zenbait proposamen eta haien buruzagi, alderdi eta mugimenduak sisteman barneratu ditzake iraultza pasiboaren bidez eta era horretan indarrean dagoen sistema mantendu (1985: 137-143). Aurreko adibidean diferentzien autonomiarako joera aktore herritarren gaitasunik ezaren ondorioa zen bitartean, kasu honetan botere politikoaren jardueraren ondorioa litzateke. Laclauen ereduan, eremu herritarrean kokatzen diren zenbait eskari logika diferentzial instituzionalista batean berrartikulatuko lirateke beste eskari batzuk bazterten diren bitartean. Botere politikoak bere hegemonia mantenduko luke bere aurkako polarizazioa desaktibatuz eta balizko kontra-hegemonia desaktibatuz.



7. irudia. Kate alternatiboa eta muga berriaren sorrera.
Iturria: egileak egina.

Esandakoaren arabera beraz, populismoa ez da eduki zehatzak dituen ideologia bat, logika politiko bat baizik (Laclau, 2005: 150). Laclauk etengabe erabiltzen dituen kontzeptuak dira politika, hegemonia eta populismoa, eta guztiek harreman hertsia dute. Diskurtsoa eta diskurtsibitatea politikaren funtsarekin lotzen ditu plano abstraktu batean, eta hegemonia horren adierazpen zehatzago bat da. Hau da, praktika hegemonikoetatik harago politika egiteko beste era batzuk daudela onartzen badugu, hegemonia politikaren adierazpen zehatzago bat dela esan dezakegu. Azkenik, populismoa, praktika hegemoniko ezberdinen artean Essexeko Eskolak hobesten duen logika politikoa litzateke. Gure artikuluen logikari jarraituz, kategoria guztien artean zehatz eta konplexuena litzateke populismoa.

9. Ondorioak: Essexeko Eskolaren irakurketa kritikoa

Atal honetan, egindako lanaren sintesia aurkeztu eta gure *hipotesi nagusia* erantzuten saiatuko gara: Essexeko Eskolak identitate eta proiektu politikoen eraikuntza diskurtsiborako oinarri teoriko egokia eskaintzen duen arren, maila ontologikoan egiturazko azterketak egiteko ez du euskarririk eskaintzen. Gure lanaren metodoari jarraituz, lehenik eta behin dimentsio abstraktu eta orokorrak landuko ditugu, ostean plano zehatz eta konplexuagoak aztertze³⁸.

38. Hemen lantzen dugun kritikaren osagarri interesgarria eskaintzen digu Galder Sierrak bere liburuan (2020).

Maila ontologikoari helduz, diskurtsoa eta diskurtsibitatea azaltzeko orduan erabilitako hitzak berreskuratuko ditugu. Haien ikuspegitik *diskurtsiboa* edo *diskurtsibitatearen eremua* itxi ezineko osotasuna litzateke eta *diskurtsoa*, aldiz, osotasun horren parte bat era prekarioan finkatzeko gaitasuna lukeen artikulazioa. Funtsean errealista hutsak³⁹ dira eta, horren ondorioz, diskurtsotik harago mundu erreala eta haren erakundeen berezko ezaugarriak, joerak, botere-harremanak eta abar ez dituzte aintzat hartzen (Jessop, 1990: 295). Mundu errealaren ezaugarrietara zuzeneko sarbiderik ez dugun arren, haren kalitateek beste entitateekiko harremanak erraztu edo zaildu ditzakete. Kanpo-errealitatea, edo haien hitzetan diskurtsibitatearen eremua, beti izango da dimentsio baldintzatzailea.

Laclau eta Mouffek Norman Geras-ekin izan zuten hartu-emanaren adibide batean adierazi zuten harri batek jaurtigai moduan dituen ezaugarriak diskurtsiboak direla (Laclau, Mouffe, 1987). Aipatu adibidea berreskuratuz, harri bat ezin da materia denik ukatu, baina haren testuinguru sozialaren arabera, etxe bat eraikitzeko adreilua gerra-tresna bat edo aurkikuntza arkeologiko bat izan litekeela adierazten dute. Hala ere, Jessopek era kritikoa adierazten duen moduan, harriaren berezko ezaugarriek (eta ez horren inguruko ezaugarri diskurtsiboek) egiten dute adibidez artilea baino jaurtigai egokiagoa izatea (1990: 295). Fenomeno sozialen inguruan ere antzeko hausnarketa egin daiteke. Horiek azaleratu egiten diren ezaugarri eta joerak dituzte eta, askotan haien existentzia ezagutu ezin den arren, bizitza sozialean eragin handia dute.

Beste parametro batzuetan, baina antzeko logikan, ulertu behar da Laclau eta Zizekek klasearen inguruan izan zuten eztabaida klasikoa (2000). Laclauentzat klasea beste identitate bat baino ez den neurrian, subjektibotasun politiko anitzen artean artikulatu beharreko adierazlea litzateke. Zizeken ikuspegitik, aldiz, klasearen itxurazko ahultzea kapitalismo garaikidearen ezaugarria litzateke (2000: 321).

Alde batetik, bat gatoz haren hausnarketarekin. Borroka sozialak ez dira hustasun diskurtsibo batean eraikitzen, eta klasea, hegemonia eta artikulazioaren inguruan azken urteetan jazo diren hainbat eztabaida kapitalismo garaikidearen ezaugarrien barnean ulertu beharra dago. Hala ere, Zizekek bere hausnarketaren jarraipenean adierazitakoa aintzat hartuz, borroka ezberdinen arteko artikulazioan klase-borrokak «lehentasuna» duela aditzera ematen du. Horrek, neurri handi batean, klase-determinismoaren berrezarpenari ateak irekitzea eragin dezake (Sierra, 2020: 139-140). Interesgarria da bien arteko sintesia eskaintzen digun Jessopen hausnarketa.

Laclau eta Mouffek Ikuspegi Estrategiko Harremanezkoarekin ezberdintasun ugari izan arren, analisi sozialean fundazionalismoaren ukapena komunean dute (Jessop, 1990: 298). Hori dela eta, formazio soziala praktika artikulatzaile kontingenteen ondorio ez-osoan litzateke eta haren batasun erlatiboa ez luke printzipio esentzial bakar batek bultzatuko, elementu sozial ezberdinen arteko lotura ezegonkor eta behin-behinekoaren ondorioa litzateke. Hortaz, Zizekek adierazitakoaren aurka formazio soziala ezin da klasearen lehentasunera mugatu.

39. Ingelesez, 'empty realists' moduan ezagutzen dena.

Jessop horrekin bat datorren arren, Laclauk eta Mouffek prozesu hori eraikuntza diskurtsibo batera mugatzen dute (Jessop, 1990: 228). Aldebakartasun diskurtsibo horren ondorioz, ordena sozialaren artikulazioa subjektuen identitateen arabera artikulaziora eta identitate eta interesen arabera ekibalentzia-kateen sorrerara mugatzen da. Horrek elementu material eta instituzionalak alboratzea dakar.

Mouzelis-ek adierazten duen moduan, egitura instituzionalen erreifikazioari dioten beldurraren ondorioz beste muturrera joan eta praktika artikulatzaileak hustasun instituzional batean egingo balira moduan jasotzen dituzte (1988: 116). Horren ondorioz, instituzioek ekintza ahalbidetu edo mugatzeko duten ahalmena edota formazio sozialen sorrera, egonkortasuna edo epe luzeko eraldaketa ahazten dituzte.

Horrekin lotuta, Jessopek «esanahi»aren eta «esperientzia»ren arteko ezberdintasunaren beharra azpimarratzen du, lehenengo aktoreen marko diskurtsiboarekin lotuz eta bigarrena haien jarduera-eremuen baldintzekin (1990: 299). Hori dela eta, «esanahia» aktoreek eskura dituzten «esanahi» ezberdinen artean egiten duten eraikuntza-prozesuarekin loturik legoke. «Esperientzia», bestalde, mundu sozial eta naturalak aktoreen esanahi-sistematik harago duten eraginarekin lotzen du. Hori dela eta, «esanahia» eta «esperientzia» batak bestea baldintzatzen duen ekintza-kate beraren bi momentu ezberdin lirateke, beraz, batak ezin du bestea baztertu. Jessopen aburuz, «diskurtoaren teoria»k euskarri egokia eskaintzen digu «esanahi»aren azterketan, baina gabeziak ditu «esperientzia»ri dagokionez.

Zentzu horretan, diskurtoaren teoriak helburu analitiko unibertsalak izan arren, praktikan haren jarraitzaileek oso gai zehatzak landu dituzte, gehienak subjektuen eta identitateen sorrerarekin, interesen artikulazioarekin, antagonismo sozialarekin eta mobilizazio politikoaren ezaugarriekin lotutakoak. Horren ondorioz eskaini dituzten kontzeptuak ere eremu horietatik eratorzen dira.

Gure argudioak osatze aldera, interes berezia dauka Jules Townshendek (2003) Essexeko Eskolaren printzipioetan oinarritutako lan enpirikoen inguruan egiten duen kritika aztertzeak. Laclau eta Moufferen jarraitzaile diren David Howarthek, Aletta J. Norval-ek eta Yannis Stavrakakis-ek diskurtoaren teorian oinarrituriko azterketakasuak biltzen zituen lan kolektibo bat editatu zuten 2000. urtean. *Discourse theory and political analysis: identities, hegemonies and social change* izenburua duen liburuan Laclau eta Moufferen lanetan ohikoak diren kontzeptu abstraktuak kasu praktikoetan aplikatzen dituzte, beraz, eskola horren ezagutzarako lan interesgarria eskaintzen digu.

Townshendek aipatu liburuaren azterketa kritikoa egiteko, McLennan-ek ezberdindutako (1996) diskurtoaren teoriaren «thick» (gogorra) eta «thin» (arina)⁴⁰ bertsioak erabiltzen ditu. «Thick» ikuspegiak ez du elementu sozioekonomikoek eremu diskurtsiboan duten garrantzia kontuan hartzen, eta «thin» bertsioak, aldiz, faktore sozioekonomikoek duten eragina onartzeko gaitasun handiagoa izango luke (McLennan, 1996: 54-56).

40. McLennanek «minor key» eta «major key» kontzeptuak erabiltzen ditu.

Townshendek ere Essexeko Eskolako kideen kasu zehatzen azterketan «thick» ikuspegia kritikatu eta «thin» hurbilpena hobesten du. Banaketa horrek gure ikerketan izan dezakeen garrantzia kontuan hartuta, beharrezkoa da bi ikuspegiak tartekatzen dituzten kasu enpirikoen deskribapen labur bat egitea.

«Thick» ikuspegiaren adibide argiena litzateke Barros-ek eta Castagnola-k Argentinan 1955 eta 1973 urteen artean peronismoaren eragina aztertzeko egiten duten azterketa (Howarth, Norval, Stavrakis, 2000: 24-38). Euren lanean, Peronek gai sozialak lehia etengabea kokatzeko izan zuen gaitasunari egozten diote, haren arrakastan inolako oinarri instituzional eta ekonomikorik kontuan hartu gabe. Townshendek egiten duen kritika jasoz, faktore sinbolikoen garrantzia ezin da gutxietsi, baina ezinbestekoa da elementu ekonomiko eta instituzionalak kontuan hartzea, hau da, proposamen batzuen arrakasta aztertzeaz gain, arrakasta horren oihartzuna ahalbidetzen duten aukerarako baldintzak ere kontuan hartu behar dira (2004: 134).

HowartheK 1976-1986 urteetan Kontzientzia Beltzaren Mugimenduaren (KBM)⁴¹ gainbehera eta Afrikako Kongresu Nazionalaren (AKN) indartzea haien diskurtsoetan oinarrituz azaltzen du «thick» ikuspegira hurbilduz (Howarth, Norval, Stavrakis, 2000: 168-193). Haren aburuz, gako «belztasuna»⁴² apartheidaren aurkako borroka elkartzeko adierazle huts ez bihurtzean datza, baina, Townshendek adierazten duen moduan, ez dakigu gabezia hauek haien diskurtsoaren ondorio diren edo AKNren ezarpen indartsuaren ondorio (2003: 134).

Aipatu lanean beste hainbat kasu enpiriko lantzen diren arren, Howarth eta Griggs-ek aztertutako Manchesterreko aireportuko lurreratze-pista berriaren aurkako mugimenduaren kasua (Howarth, Norval, Stavrakis, 2000: 52-70) da «thin» ikuspegira gehien hurbiltzen dena. «Vegans and Volvos» metafora darabilte ekologista erradikalen eta klase altuko bizilagunen elkartzea deskribatzeko. Aipatu autoreek beste ikuspegi teorikoetako ekarpenak jasotzeko gaitasuna dute, besteak beste, Dunleavy-ren talde-identitateen teoria eta hautu arrazionalaren teoretatik hurbil dagoen interesaren kontzeptua (Townshend, 2003: 136). «Vegan eta Volvo»-en batasunaren porrota azaltzeko bestalde, adierazle huts baten faltarekin lotzeaz gain, baliabideen egiturazko asimetriarekin ere lotzen dute elementu diskurtsiboak elementu materialagoekin lotuz.

«Thin» ikuspegiaren aplikazio argia eskaintzen digu Errejonek (2011) Boliviako MASen lehenengo gobernuaren hegemoniaren inguruko doktorego-tesian. Bere lanean zuzenean Thownsenden kritika jaso eta diskurtsoaren teoriaren erabilera azpimarratzeaz gain bere aukerarako baldintzei ere garrantzia ematen die.

Bat gatoz maila ezberdinetan Jessopek, Townshendek eta Errejonek egindako hausnarketekin, diskurtsoaz gain haren arrakasta edo porrota ahalbidetu edo galaraziko duten aukerarako baldintzak kontuan hartzea ezinbestekoa izango delako. Hori dela eta, errealitatea eta fenomeno sozial guztiak diskurtsoen bidez eta zehazki diskurtsoaren teoriaren bidez azaltzea gehiegizkoa litzatekeela uste

41. Black Consciousness Movement.

42. «Blackness».

dugu. Eskola horretan kokatzen den Torfingek dioskun moduan, diskurtsoaren teoria «metodologia master totalizatzaile» gisa baztertu behar da eta haren erabilera «esentzialismoa gaindituz» eta «brikolaje metodologikoa» aplikatuz indartu daiteke (1999: 292). Howartheek ere ikuspegi horren izaera totalizatzailea baztertu eta ikerketa-objektu zehatz batzuk hobesten ditu: identitate politikoen eraikuntza, diskurtso eta subjektibotasun partikularren artikulazio hegemonikorako praktikak edota jendarte-antagonismoen eraikuntza eta muga politikoen ezarpena (2005: 47).

Esandakoaren arabera, beste ikuspegi teoriko batzuekin uztartuta eta soilik egoera zehatzen azterketa helburua izanik, balio handiko euskarria eskaintzen digula deritzogu. Diskurtsoen deskribapena (haien sorrera, iraunkortasuna eta aldaketa) eta horiek eraldaketa politikoan duten garrantzia azaltzeko ekarpen erabilgarria egiten dute.

Hori dela eta, gure ikuspegitik ez da kontraesankorra adieraztea diskurtsoek errealitatea deskribatu baino areago errealitate hori eraikitzeke gaitasuna daukatela, baina aldi berean Howartheek esandakoari jarraituz, diskurtso partikularren zenbait elementu beste batzuk baino «egiazkoagoak» direla (2000: 113-115), edota Gerasek esan bezala, errealitatea azaltzeko orduan zenbait diskurtso partikular beste diskurtso batzuk baino «egiazkoagoak» direla (Townshend, 2004: 285). Ezin da, beraz, errealitate «estra-diskurtsiboa»k esanahia eraikitzeke duen potentziala baztertu. Heideggerren izatea/existentzia banaketan oinarritutako diskurtsoaren nozio orokor baten ordeaz, diskurtso ezberdinei buruz hitz egitea egokiagoa litzateke (Townshend, 2004: 285). Townshenden irakurketa hori bat dator Jessopek egiten duen «momentu semiotiko»aren eta «momentu material»aren arteko banaketarekin. Haren ikuspegitik funtsezkoa da semiosia posible egiten duten baldintza estra-semiotikoak aztertzea (2008: 238).

Essexeko Eskolaren indargunerik handiena, beraz, diskurtso politikoen azterketa eta identitate politikoen eraikuntza da, eta, gainera, praktikan hori izan da haienb ikerketa-gai nagusia. Hala ere, azterketa horretan «adierazle huts» baten arrakastaren zergatia, adibidez, haren sorrera eta eraldaketarako baldintza «ez-diskurtsibo»en arabera baldintzatuta egongo dela deritzogu. Gure hipotesian adierazi dugun moduan, Essexeko Eskolak identitate eta proiektu politikoen eraikuntza diskurtsiborako oinarri teoriko egokia eskaintzen duen arren, maila ontologikoan egiturazko azterketak egiteko ez du euskarri materialik eskaintzen. Diskurtsoen gaitasun performatiboa ezin dugu haren aukerarako baldintzetatik banatu, hori dela eta, Finlayson eta Valentine-k dioten bezala, «zer?» eta «nola?» azaltzeaz gain, «zergatik?» ere azaldu beharko dugu (2002: 15).

Bibliografía

- Azkune, Jon (2016): «Democracia, soberanía y populismo en la Unión Europea: la emergencia de la izquierda independentista escocesa», *Clivatge*, 4, 31-60.
- , (2017): «Laclau eta Mouffe Eskozian», in Aoiz *et al.*, *Hegemonia, artikulazioa eta populismoa: Laclaren ekarpenak eta Euskal Herria*, Iratzar Fundazioa, Donostia. [Online] Eskuragarri hemen: <<https://dialnet.unirioja.es/servlet/libro?codigo=698228>> (Kontsulta eguna: 2021/07/14).
- , (2020): «Nationalism, Hegemony and Populism: The Basque Case as a Symptom of a Global Phenomenon», *Ethnopolitics*, 19:3, 229-251.
- Azkune, Jon eta Zubiaga, Mario (2018): «Sobre los límites del Populismo: gestión de la excepcionalidad política y democratización en España y Euskal Herria», in Noemi Bergantiños eta Pedro Ibarra (ed.), *Respuestas y propuestas de regeneración frente a la crisis de la democracia*, Tecnos, Madril.
- Arditi, Benjamin (2010): «Post-hegemonía: la política fuera del paradigma post-marxista habitual», in Heriberto Cairo eta Javier Franzé (ed.), *Política y cultura*, Biblioteca Nueva, Madril.
- Errejón, Iñigo (2011): *La lucha por la hegemonía durante el primer gobierno del MAS en Bolivia: un análisis discursivo*, UCM, Madril.
- Errejón, Iñigo eta Mouffe, Chantal (2015): *Construir pueblo Hegemonía y radicalización de la democracia*, Icaria, Bartzelona.
- Finlayson, Alan eta Valentine, Jeremy (2002): *Politics and Post-structuralism*, Edinburgh University Press, Edinburgo.
- Gadea, Walter Federico (2008): «Ciudadanía, identidad y hegemonía política en el contexto de la democracia radical. Un Estudio sintético del pensamiento de Ernesto Laclau», *Astrolabio: revista internacional de filosofía*, 6.
- Galfarsoro, Imanol (2008): *Subordinazioaren Kontra*, Pamiela Argitaletxea, Iruñea.
- Glynos, Jason eta Howarth, David (2007): *Logics of Critical Explanation in Social and Political Theory*, Routledge, Abingdon.
- Gramsci, Antonio (1985). *La política y el Estado moderno*, Planeta De-Agostini, Bartzelona.
- Goikoetxea, Jule (2015): «Euskal Estatu Feminista», in Unai Apaolaza, Imanol Galfarsoro, Jule Goikoetxea eta Andoni Olariaga (ed.), *Independentzia Helburu*, Txalaparta, Tafalla.
- Howarth, David (2000): *Discourse*, Open University Press, Buckingham.
- , (2005): «Aplicando la teoría del Discurso: el Método de la Articulación», *Studia Politicae*, 05, 38-88.
- , (2008): «Hegemonía, subjetividad política y democracia radical», in Marchart Chrtichley (konp.), *Laclau. Aproximaciones críticas a su obra*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- Howarth, David; Norval, Aletta eta Stavrakakis, Yanis (2000): *Discourse Theory and political analysis: identities, hegemonies and social change*, Manchester University Press, Manchester.
- Ibañez, Tomás (2003): «El giro lingüístico», in Lupicínio Iñiguez (ed.), *Análisis del discurso Manual para las ciencias sociales*, UOC, Bartzelona.
- Jessop, Bob (1982): *The Capitalist State: Marxist Theories and Methods*, Martin Robertson, Oxford.
- , (1990): *State Theory: Putting Capitalist States in their Place*, Polity Press, Cambridge.
- , (2008): *State Power: A Strategic Relational Approach*, Polity Press, Cambridge.

- Laclau, Ernesto (1985): «Tesis acerca de la Forma Hegemónica de la Política», in José Aricó eta Julio Labastida Martín Del Campo (konp.), *Hegemonía y alternativas políticas en América Latina*, Siglo XXI, Mexiko.
- , (1990): *Nuevas reflexiones sobre la revolución de nuestro tiempo*, Verso, Londres.
- , (1995): «Subject of politics, politics of the subject», *Differences: A Journal of Feminist Cultural Studies*, 7:1, 145-164.
- , (1995b): «Universalismo, particularismo y el tema de la identidad», *Revista Internacional de Filosofía Política*, 5, 38-52.
- , (1996): *Emancipación y diferencia*, Ariel, Madril.
- , (1998): «Deconstrucción, pragmatismo y hegemonía», in Chantal Mouffe (konp.), *Deconstrucción y pragmatismo*, Paidós, Buenos Aires.
- , (2000): «Identidad y hegemonía: el rol de la universalidad en la construcción de lógicas políticas», in Judith Butler, Ernesto Laclau eta Slavoj Žižek (ed.), *Contingencia, hegemonía universalidad*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- , (2003): «Catacresis y metáfora en la construcción de la identidad colectiva», *Phrónesis. Revista de filosofía y cultura democrática*, 3:9.
- , (2005): *La Razón Populista*, Fondo de Cultura Económica de Argentina, Buenos Aires.
- , (2006): «¿Por qué la construcción del pueblo es la tarea principal de una política radical?», *Cuadernos del CENDES*, 23:62, 1-36.
- Laclau, Ernesto eta Mouffe, Chantal (1987): *Hegemonía y Estrategia socialista hacia una radicalización de la democracia*, Siglo XXI, Madril.
- McLennan, Gregor (1996): «Post-Marxism and the Four Sins of Modernist Theorizing», *New Left Review*, 218, 53-74.
- Molina, Juilan eta Grosser, Vedia (2008): «La construcción del “pueblo” según Laclau», *La Lámpara de Diógenes*, 9:16-17, 137-157.
- Mouffe, Chantal (1999): *El retorno de lo político, comunidad, ciudadanía, pluralismo, democracia radical*, Paidós, Batzelona.
- , (2007): *En torno a lo político*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- , (2012): *La paradoja democrática: el peligro del consenso en la política contemporánea*, Gedisa, Bartzelona.
- Mouzelis, Nicos (1988): «Marxism or Post-Marxism», *New Left Review*, 167, 117-121.
- Retamozo, Martín (2012): «Tras las huellas del Hegemón. Usos de hegemonía en la teoría política de Ernesto Laclau», *Utopía y Praxis Latinoamericana*, 16(55) 39-57.
- Sierra, Galder (2020): *Jendarte aldarrikatzen den Herria: hegemoniaren eraikuntzaren begirada populista bat*, UEU, Bilbo.
- Stavrakakis, Yannis (1999): *Lacan and the Political*, Routledge, Londres.
- Sum, Ngai-Ling (2004): «From “Integral State” to “Integral World Economic Order”: Towards a Neo-Gramscian Cultural International Political Economy», *Working Paper*, 7, Institute for Advanced Studies Working Paper Series, Lancaster University, Lancaster.
- Tarrow, Sidney (1997): *El poder en movimiento. Los movimientos sociales, la acción colectiva y la política*, Alianza, Madril.
- Tilly, Charles (2010): *Democracia*, Akal, Madril.
- Torring, Jacob (1999): *New Theories of Discourse Laclau, Mouffe and Žižek*, Blackwell, Oxford.
- Townshend, Jules (2003): «Discourse theory and political analysis: a new paradigm from the Essex School?», *British Journal of Politics and International Relations*, 5:1, 129-142.

- , (2004): «Laclau and Mouffe's Hegemonic Project: The story so far», *Political Studies*, 52, 269-288.
- Vergalito, Esteban (2007): «Devenires de la teoría del populismo: marxismo, postestructuralismo y pragmatismo en Ernesto Laclau», in Celina Lértora Mendoza (koord.), *Evolución de las ideas filosóficas: 1980-2005. XIII Jornadas de pensamiento filosófico argentino*, 36-46, FEPAL, Buenos Aires.
- Zizek, Slavoj (1989): *The sublime object of ideology*, Verso, Londres.
- , (2000): «Mantener el lugar», in Judith Butler, Ernesto Laclau eta Slavoj Zizek (ed.), *Contingencia, hegemonía universalidad*, Fondo de Cultura Económica, Buenos Aires.
- , (2010): *En defensa de la intolerancia*, Público, Madril.
- Zubiaga, Mario (2008): *Boteretik eraginera mekanismoak eta prozesuak Urbina-Maltzagako liskarretan*, Doktorego Tesia, EHU, Leioa.
- , (2012): «Democratization and contentious politics: Basque state-building as collective action», in Mario Zubiaga (ed.), *Towards a Basque State. Nation building and institutions*, IparHegoa Fundazioa, UEU, Bilbo. [Online] Eskuragarri hemen: <http://www.iparhegoa.org/materiala/Argitalpenak/euskalEstatua/01_Nation-buildingAndInstitutions.pdf> (Kontsulta eguna: 2021/07/13)
- , (2012b): «Poder como hegemonía», in Igor Ahedo eta Izaro Gorostidi (ed.), *Política Integral*, Pamiela, Iruñea.

